

BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

2888

EBAZPENA, 2022ko ekainaren 15ekoa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, garapenerako lankidetzaren «Ignacio Ellacuría» Sariaren 2022ko deialdia iragartzen duena.

Ekainaren 30eko 79/2020 Dekretuaren bitartez arautzen da «Ignacio Ellacuría» Saria, eta haren helburua da Euskadiko eta Euskaditik kanpoko erakundeek, kolektiboek eta gizabanakoek herrien arteko berdintasunaren eta justiziaren aldeko eta pobrezia ezabatzeko borrokan egindako ekarpena aitortzea eta ezagutaraztea, euskal gizartea eta nazioartekoa sentsibilizatzeko aldera.

Dekretu horren 3. artikuluan ezartzen denez, aldian-aldian egingo da sariaren deialdia, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren ebazpen baten bidez, eta ebazpenean zehaztuko dira edizio bakoitzaren oinarri espezifikoak. Bestalde, dekretuaren 5. artikulua xedatzen du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak kudeatuko duela saria.

Deialdi honek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen oniritzia jaso zuen, 2022ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran.

Hori dela-eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Deialdia.

Garapenerako lankidetzaren «Ignacio Ellacuría» Sariaren 2022ko deialdia egitea, onartu diren eta eranskinean agertzen diren oinarriei jarraituz.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honetan berariaz aurreikusten ez den guztian, arau hauek aplikatuko dira: 79/2020 Dekretua, ekainaren 30ekoa, Garapenerako lankidetzaren «Ignacio Ellacuría» Saria arautzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea-rena; 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena; eta 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

2022ko ekainaren 24a, ostirala

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 15a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

ERANSKINA

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN «IGNACIO ELLACURÍA» SARIAREN 2022KO DEIALDIAREN OINARRIAK

Lehenenegoa.– Saria.

Ebazpen honen xedea da garapenerako lankidetzaren «Ignacio Ellacuría» Sariaren deialdia egi-
tea; sari horren helburua da erakundeek, kolektiboek, gizabanakoek eta ekimenek herrien arteko
berdintasunaren eta justiziaren aldeko eta pobrezia ezabatzeko borrokan egindako ekarpena aitortze
a eta behar den hedapena ematea, euskal gizartearen sentsibilizatzeko aldera.

Bigarrena.– Sariaren ezaugarriak.

Saria 15.500 euroko zenbateko gordina izango da. Diru-zenbateko horrek dagokion atxikipen
fiskala izango du.

Hirugarrena.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Egoitza soziala edo ordezkari iraukorra EAEn duten eta hautagaitzak aurkeztu nahi
dituzten garapenerako lankidetzako erakundeek bitarteko elektronikoen bidez kontsultatu eta egin
beharko dituzte prozedura honetako izapide guztiak.

2.– Hautagaitzak aurkezteko moduari buruzko zehaztapenak www.euskadi.eus -eko egoitza
elektronikoan daude eskuragarri, Laguntzak eta dirulaguntzak atalean, edo www.elankidetz.eus-
kadi.eus web-orrian, Deialdiak deritzon atalean.

3.– Eskareren osteko izapideak helbide honetan egingo dira: [https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/
web01-sede/eu/](https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/)

Laugarrena.– Hautagaitzak aurkezteko epea eta modua.

1.– Hautagaitzak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Aginta-
ritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, eta, amaitu, berriz, epemuga-hilean
amaituko da, argitalpena egin zen egunean. Epemuga-hilean ez badago epea hasi den egunaren
baliokiderik, hilaren azken egunean bukatuko da epea.

2.– Hautagaitzak aurkezteko, www.euskadi.eus egoitza elektronikora jo beharko da, Laguntzak
eta dirulaguntzak atalera.

Bosgarrena.– Hautagaitzak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Hautagaitza eskabide-orri normalizatuan bete beharko da, behar bezala eta osorik, zeina
eskuragarri egongo baita www.euskadi.eus egoitza elektronikoa, Laguntzak eta dirulaguntzak
ataleran.

2.– Hautagaitza horrekin batera, hauek aurkeztu behar dira:

a) Pertsona fisiko edo juridikoaren ekarpena egiaztatzen duen dokumentazioa edo, hala bada-
gokio, sarirako proposatutako ekimena, hautagaitza aurkeztu duen erakundearen iritziz saria
merezi duena.

b) Hala badagokio, proposatutako hautagaitzaren aldeko abalak edo atxikipenak, hura formali-
zatu dutenek aurkeztutakoak.

2022ko ekainaren 24a, ostirala

c) Eskabidean eta aurkeztutako gainerako agirietan emandako datuen egiazkotasunari eta zehaztasunari buruzko erantzukizunpeko aitortpena, non, hala ez bada, dagokion ardua hartzen baita, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28.7 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

d) Legezko ordezkariak egiaztatzen duen dokumentazioa, betiere eskaera sinatzen duen pertsona Eusko Jaurlaritzako Ordezkarien Erregistro elektronikoa inskribatuta ez badago erakunde eskatzailearen ordezkari gisa, eta egiaztapen hori jasota ez badago Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Lankidetzaren Agenteen Erregistroan.

Seigarrena.– Epaimahaia.

Hautagaiak aztertzeko, epaimahai bat eratuko da, kide hauek izango dituenak:

– Lehendakaria: Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, berdintasun eta Justizia Batzordeko burua: Leixuri Arrizabalaga Arruza.

– Bokalak:

- Eusko Jaurlaritzaren eta beste euskal erakunde batzuen ordezkariak: Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko zuzendaria, Monika Hernando Porres, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaria, Miren Izaskun Landaida Larizgoitia.

- Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundearen Euskadiko Koordinakundearen lehendakaria: Josu Urrutia Beristain.

- Lankidetzaren eta garapenaren alorrean izen handia duen pertsona bat: Iñaki Orube Mendia, Ignacio Ellacuria Sariaren 2021eko hautagaitza adjudikaziodunen ordezkari.

– Idazkaria: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Zerbitzu Juridikoaren arduraduna, Ana Isabel Rojo González.

Epaimahai horrek, deialdi honetan jasotako irizpideak kontuan hartuta, ebazpen-proposamena bidaliko dio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Zuzendaritzari.

Zazpigarrena.– Saria ematea.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak xede horretarako antolatutako ekitaldi publiko batean emango da saria, Lehendakariaren egoitzan, Vitoria-Gasteizen.